



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko ekainaren 3a

80. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Jabeldura, prestazio handiko trenaren inguruko politika orokorrari buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da bete ditzan Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legearen artikulua, Konstituzio Auzitegiak baliogabetu ez dituenak. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Ebro ibaiaren garbitzeko beharrezkoak diren baimenak eman ditzan, nekazariei urreztatzea ahalbidetze aldera. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da erantzukizun fiskaleko txostenak eska diezazkien kontratazio publikoko lehiaketetara aurkezten diren enpresa handiei. EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da diabetesa duten helduentzako unitate funtzionala, diziplina anitzeko taldea izan den duena, sor dezan. Unión del Pueblo Navarro, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak eta Nafarroako Alderdi Popularreko eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (9. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak deitoratu egiten baitu ingurumen-aktibistek Hondurasen duten egoera. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten baitu Buñuelgo General Electric-en lantegian enpleguari eusteko. Eledunen Batzarrak onetsia (11. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- Galdera, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko Foru Legea Estatu-ko araudira egokitzeari buruzkoa. Mónica Doménech Linde andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak prestazio handiko trenaren sustatzeko proposatutako dituen neurriei buruzkoa. Carlos García Adanero jaunak egin du (12. or.).

- Galdera, Anbulantzia Medikalizatuko Zerbitzuari buruzkoa. Sergio Sayas López jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, erietxe-arteko zerbitzu programatuaren pribatizazioari eta Reina Sofia Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuetarako zainketa intentsiboen bigarren unitate mugikor bat ezartzeko aukerari buruzkoa. María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Iruña-Noain aireportuaren garapena agertuko duen azterlanaren egoerari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren banda zabal korporatiboaren eta abiadura handiko zuntz optikoaren eta Interneten hedapena garatu eta handitzeari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldeen artean arrakala digitala txikitzeari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Merkataritza Modernizatzeari buruzko IV. Planari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, kolaborazio-ekonomiaren jarraipena egiteko Mahai bat abian jartzeari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko ekintzaileei laguntzeko ezarri dituen neurriei buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, legegintzaldi honen hasieratik abiarazi diren Gobernu Irekiaren ekintzei buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (17. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuari zerbitzu ematen dion Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboko sistema informatikoaren azpiegitura teknologikoak hobetzeko neurriei buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean irakurketa sustatzeko jarduketei buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, Nafarroaren Nazioarteko Planari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernua Juncker Planaren aukerak aprobeztatzeko abiarazten ari den ekintzei buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, komunikaziorako gastua hedabideetan banatzeari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Enpresa Publikoetarako Gardentasun Planari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubideko ura ubide horren 1. fasearen handitze berri baten bidez jasotze aldera zenbait udalek egin duten eskaerari buruzkoa. Santos Cerdán León jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidearen 2. faseari buruzkoa. Santos Cerdán León jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, ibaiek Nafarroan dituzten ibilguetako puntu jakin batzuetan legarrak, lohiak eta adarrak garbitzeari buruzkoa. Santos Cerdán León jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Ebro ibaiaren Mahaiaren bileretarako kronogramari buruzkoa. Santos Cerdán León jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, uholde-arriskuari buruzko plan berekiaren aurkezpenari buruzkoa. Santos Cerdán León jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, ustelkeriaren aurkako bulegoa sortzeari buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (23. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak espetxe arloko eskumenak bere gain hartzeko aurreikusitako dituen jarduketei buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (24. or.).
- Galdera, Nafarroako Jauregian egiten ari diren obrei buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (24. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Bulego Fiskal berrirako sustatu duen ereduari buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (25. or.).
- Galdera, berriro ere kudeaketa publikoan jarri diren zerbitzu pribatizatuiei buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (25. or.).
- Galdera, trafiko arloko eskumenak eskuratzeari buruzkoa. María Inmaculada Jurío Macaya andreak egin du (26. or.).

- Galdera, errenta-aitorpenaren kanpaina dela-eta bai Ogasuneko 182. zenbakiko erredua aurkeztu behar duten elkarte, sindikatu eta erakundeei bai zergadunarentzako arreta ematen duten administrariei eman zaizkien jarraibideei buruzkoa. María Fátima Andreo Vázquez andreak egin du (26. or.).
- Galdera, Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Kultur Ondarearen Ondasunen Erregistroan inskribatutako ondasunen jabeei egindako errekerimenduei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (27. or.).
- Galdera, 2016-2017 ikasturteari begira Iruñeko Ermitagaña ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehen mailan lerro berri bat ezartzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (28. or.).
- Galdera, 2016-2017 ikasturteari begira Tuterako Monte San Julián ikastetxe publikoan Haur Hezkuntzako lehen mailan lerro berri bat ezartzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (28. or.).
- Galdera, Berriozarko Mendialdea I ikastetxe publikoko Haur Hezkuntzako lehen mailako ikasleei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (29. or.).
- Galdera, Nafarroako ikastetxe publikoetan erlijio katolikoko eskoletara joaten diren ikasleei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (29. or.).
- Galdera, garraio-txartel zaharrak erretiratzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (30. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Arauk, Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lau kideak hautatzekoak (31. or.).

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Jabeldura, prestazio handiko trenaren inguruko politika orokorrari buruzkoa.**

*CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkezturiko jabeldura, prestazio handiko trenaren inguruko politika orokorrari buruzkoa.

2. Jabeldura hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **JABELDURAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako Carlos García Adanero foru parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ematen dizkion ahalmenez baliatuz eta ondoko zioen azalpenean adierazitakoa oinarri:

Errioxako Gobernuako lehendakariaren eta Nafarroako Gobernuako lehendakariaren arteko bileraren ondoren,

Nafarroako Gobernuari jabeldura egiten diogu Nafarroako Gobernuak prestazio handiko trenari dagokionez gauzatuko duen politika orokorrari buruz.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bete ditzan Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legearen artikulua, Konstituzio Auzitegiak baliogabetu ez dituenak.**

*IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita bete ditzan Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta

erreparazioari buruzko apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legearen artikulua, Konstituzio Auzitegiak baliogabetu ez dituenak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari

ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkar-teak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritako-aren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernu-a premiatzen baita bete ditzan, apirilaren 10eko 16/2015 Foru Legetik, Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkotik, Konstituzio Auzite-giak balio gabetu ez dituen artikulua.

2016ko urtarrilaren 5ean, Alderdi Popularraren gobernuak errekurtsioa aurkeztu zuen Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek era-gindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko Foru Legearen aurka. Horren ondorioz, lege horren artikulua guztiak automatikoki blokeatuta gelditu ziren.

Aurtengo otsailaren 16an, Foru Gobernuaren zerbitzu juridikoen Konstituzio Auzitegiari eskatu zioten ezen, arauaren konstituzio-kontrakotasuna ebazten zen bitartean, legearen etena ken zezala, eta auzitegiak eskaera hori onetsi egin zuen 1.1 artikulurako, 1.2 artikulua b), e) eta f) idatz-zatietarako, 7. eta 8. artikuluetarako eta xedapen gehigarriak.

Lege hori justizia-hutsune nabarmen bat bete-tzen saiatu zen; hutsune horrek luze zirauen, gertaera horien aurreko isiltasun instituzionalagatik eta, batez ere, poliziaren edo talde ultren indarkeriaren biktimen senideek jasan duten bidegabeke-ria- eta inpunitate-sentsazioagatik.

Maila sozial eta instituzionalean, beharrezko jarrera da injustizia hori zuzentzea eta eginiko kal-teagatik ordaintzeko nahiz gertatuak ahalik eta gehiena argitzeko behar diren jardunbide guztiak abiaraztea, funtzionario publikoek buruturiko indar-keria-gertakariak egon direnean, motibazio politi-koko indarkeriako testuinguruan.

ETAren biktimei dagokienez, negargarria izan da haien egoera. Eragindako kalteari –a-tzeraezina, heriotza-kasuan– gehitu behar zaio orain dela gutxi arte gure gizartearen zati handi batean gertatu den sentiberatasun falta: haien iku-

sezintasuna eta haiekiko desaxola muturrekoak eta umiliagarriak izan dira zenbaitetan. Alderdi horiek guztiak injustizia handi baten osagai izan dira. Eta egoera hori bera gertatzen ari da “beste-lako biktimekin”, Leonor Regañok salatu zuen bezala, ETAk eraildako Manuel Jódar polizia nazionalaren alargun eta Euskadiko Terrorismoa-ren Biktimen Elkarteko lehendakari ohiak, Eusko Jaurlaritzak sustatutako ekitaldi batean; ekitaldi hartan, izan ere, aldarri egin zuen “ETAz beste talde terroristek eragindako beste biktimen” alde, zeinak “gaur egun pairatzen ari baitira ETAren bik-timok duela zenbait urte pairatu genuenaren an-tzeko egoera bat: gizartearen desaxola, erakunde-en abandonua eta errekonozimendurik eza”.

Gure erkidegoko inork ezin izanen luke ulertu gure historiako kapitulu hau ongi itxita utzi nahi izan dezagula arrazoi horiengatik hil diren nafar gizon-emakumeen alde justiziarik egin gabe. Anoma-lia demokratiko anker eta zuzengabea da orain-dik ere argitu gabe eta ofizialki errekonozitu gabe egotea honakoen antzerako kasuak: besteak beste, José Luis Cano, haren heriotzatik 39 urte iraganda; Germán Rodríguez, 38 urte iraganda; Mikel Arregi, 37 urte iraganda; Gladys del Estal, 37 urte iraganda; edo Mikel Zabalza, 30 urte iragan-da.

Ezinbestekoa da, halaber, gure gizartea blaitu-ko duen giza eskubideen kultura bat bultzatzea, gure erakundeen babes zalantzagabea izanen duena eta herritarren artean berezko izaera hartu-ko duena.

Eta zalantzarik ez dugu jokamolde horrekin indartuko ditugula guztion onura, desberdinen arteko bizikidetasuna, gizarte kohesioa eta, azken batez, zuzenbide-estatu demokratikoa. Aitzitik, jus-tiziaren eta ekitatearen printzipioa praktikatzan ez badugu, injustizia handi bat egingen dugu eta aipa-tutako zuzenbide-estatu demokratikoa ahulduko dugu. Ez baita ahaztekoa ezen tortura eta bestela-ko tratu anker edo apalesgarriak legezkotasunaren haustura bortitz bat direla, herritarrek erakunde-en-gan duten konfiantzaren oinarriak higatzen ditue-na.

Konstituzio Auzitegiak balio gabetu ez dituen artikulua dira, gehienbat, aipagai gisa aitorten instituzionalak hartzen dituztenak eta gai hau guz-tia hezkuntzaren alorrean txertatzeari buruzkoak, bakerako hezkuntzaren esparruan.

Izan ere, 1.2. artikulua honako hau zehazten du: “Nafarroako Foru Komunitateko erakunde guz-tiek behar diren neurriak hartu behar dituzte hone-tarako: [...] f) Biktimen errekonozimendu instituzio-nala eta soziala sustatzeko”.

Eta lehenengo xedapen gehigarriak hau adierazten du: "1. [...] lehenengo urtean, [...] omenaldi-ekitaldi bat eginen die motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan eskuin muturreko erakundeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko biktimei".

Era berean, 7. artikulua honako hau zehazten du: "Bakearen eta giza eskubideen aldeko urteroko heziketa programan [...] kontuan hartuko dira foru lege honetan jasotako helburu eta printzipioak".

Beraz, Konstituzio Auzitegiaren behin betiko epaiaren zain egonda, badago bide bat biktime horien familiei eragindako mina samurtu, onbideratu eta aitortzeko, neurri ñimiñoan bada ere.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea lehenengo xedapen gehigarria hiru hilabeteko epean bete dezan eta omenaldi-ekitaldi bat egin diezaien motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan eskuin muturreko erakundeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko biktimei. Omenaldi horretan ordainezko adierazpen bat irakurriko da, zeinak biktime duintasuna, ospea eta eskubideak berrezarriko dituen eta barkameneske publiko bat eginen duen, gertakarien aitorten bat ere eginik.

2. Nafarroako Gobernuari eskatzea gai hori sardezan Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren urteroko programan, 2016-2017 ikasturteari begira.

Iruñean, 2015eko maiatzaren 19an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ebro ibaia garbitzeko beharrezkoak diren baimenak eman ditzan, nekazariei ureztatzea ahalbidetze aldera.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ebro ibaia garbitzeko beharrezkoak diren baimenak eman ditzan, nekazariei ureztatzea ahalbidetze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeen eledun María Chivite Navascués andreak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Batzordean eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ebro ibaia garbitzeko beharrezkoak diren baimenak eman ditzan, nekazariei ureztatze-lanak ahalbidetze aldera.

Otsailaren 17ko parlamentu-batzordean, Tuterako ureztatzaile-elkarteen ordezkariak egunez egun eta urtez urte aurrean dituzten problematika ezberdinen berri eman ziguten, eta konturatu ginen elkarteetako batzuetan (adibidez, Murillo de las Limas eta Traslpuente) presako jarduketak gauzatu beharra dagoela ureztatu ahal izateko; izan ere, bertako ponpaketa-estazioen inguruko mantentze-lanik eta garbiketarik ezak soroak ureztatzea eragotziko die laster.

Bere garaian CHEk jarduketa horiek baimendu zituen, eta Nafarroako Gobernuak behar du kasuko baimena izapidetu.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du honako hauetarako behar diren baimenak eta lanak eman ditzan:

1. Murillo de las Limasko Ureztatzaile Elkarteak bere ponpaketa-estazioaren inguruko legarrak garbitu ahal izatekoa, horrela legarrek ponpaketa-estazioa oztopatzea ekidinen baita.

2. Behar den makineria erabiliz Traslapuenteko Ureztatzaile Elkarteak lohiak, adarrak eta legarrak garbitu ahal izatekoa; izan ere, hondar horiek

presa txikia ia itsu utzi dute, eta ibaiaren maila jaisten denean ureztatzea ezindu egiten dute.

Lan guztiak Nafarroako Gobernuako teknikariak bertan daudela egin beharko dira.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 25ean

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da erantzukizun fiskaleko txostenak eska diezazkien kontratazio publikoko lehiaketetara aurkezten diren enpresa handiei.**

### ***EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE***

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeen eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita erantzukizun fiskaleko txostenak eska diezazkien kontratazio publikoko lehiaketetara aurkezten diren enpresa handiei.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Intermón-Oxfamek Ilusio fiskala bere txostenean emandako definizioaren arabera, paradisu fiskalak dira honako ezaugarri hauek dituen lege-esparrua nahita hartu duten lurraldeak:

– Zergapetze txikia edo deuseza.

– Ez-egoiliarrentzako zerga-abantailak, funtsezko eta benetako jarduera ekonomikorik justifikatu behar izan gabe.

– Beste zerga-administrazio batzuekiko lankidetzarik eza.

– Opakutasuna: lege-esparruek ahalbidetu egiten dute erregistratutako erakundeak, horien titularrak edo aktiboen jabeak ez identifikatzea.

Intermón-Oxfam-ek, "Plataforma por una Fiscalidad Justa" izeneko taldeak eta beste kolektibo sozial batzuek egin dituzten proposamenei eta lanei jarraituz, ziurtatu nahi dugu zergadunen dirua ezin izan dela inola ere iritsi zergei itzurtzeko asmoz paradisu fiskalak erabiltzen dituen ezin enpresa, banku edo inbertsio-funtsetara.

2010etik Frantziako hainbat eskualde hasi dira gardentasun handiagoa eskatzen beraiekin lan egiten duten bankuetako kontuetan. Suedian, Norvegian eta Finlandian udal batzuk neurri gogorak ezartzen ari dira, beren lizitazio publikoen kudeaketan gardentasun eta erantzukizun fiskal handiagoak lortze aldera. Kontratazio publikoetako parte-hartzaileei paradisu fiskalik «ez erabiltzea» exijitzen dieten toki gobernuek eta administrazioek uste dute eskakizun hori bat datorrela legeak negozioen etika, gardentasuna eta tratu-berdintasuna babesteko daukan asmoarekin.

Beren zergak osorik ordaintzea eragozteko asmoz paradisu fiskalak erabiltzen dituzten enpresek modua daukate eskaintza merkeagoak aurkezteko, eta hori ez dator bat administrazio publikoen hornitzaile guztiek aukera-berdintasuna izan behar diren printzipioarekin. Bidegabea da negozio

txikien jabe zintzoentzat, eta, gainera, distortsioa sortzen du merkatuan.

Kontratu publikoen adjudikazio-hartzaileak diren enpresa handiak, kontratu horien ehuneko handia jasotzen dutenak, dira, hain zuzen ere, paradisu fiskaletan filialak dituztenak. 2014an, lbex 35eko konpainia guztien taldeak guztira 891 enpresa zituen, zerga-egoitza non eta zergak ameskeria hutsa diren herrialdeetan zutenak.

Kontratu horiek emakidatzeko justifikazioa beti da bera, azken batean: eskaintza ekonomikorik onuragarriena zen. Ez dago klausula sozialik, langileentzako lan-baldintzarik edo giza eskubideen nahiz ingurumenaren inolako errespeturik, eta are kezka txikiagoa eragiten du askotan enpresa handi horien atzean egon ohi den sare finantzarioak, zeina sarritan paradisu fiskaltzat jotzen den herrialderen bateraino heltzen baita.

Beraz, ekimen honen bidez aldaketak eragin nahi dira Nafarroako Gobernuaren kontratazio-politikan, irizpide etikoak gehituz kontratazio publikoko haren deialdietan, halako moduan non paradisu fiskaletan filialak dituzten enpresak zigortzea lortuko baita, eta sarituko baitira iruzurrezko jokatibide horiek gauzaten ez dituzten enpresak. Eki-menaren oinarrian funtsezko bi helburu daude:

- Lortzea Nafarroak bere burua paradisu fiskalik gabeko lurraldetzat deklaratu dezan eta lizitazio prozesu batean parte hartzen duten enpresei exijituz diezaien erakuts dezatela loturarik ote duten paradisu fiskalekin, gardentasun publikorako neurri batzuk ezarri.

- Paradisu fiskaletan diharduten enpresekin zero tolerantzia aldarrikatzea eztabaida publikoan, eta herritarrak arazo horrekin sentsibilizatzea.

Hori dela eta, ondoko erabaki proposamenak aurkezten ditugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiaz du:

1. Kontratazio publikoko lehiaketetan parte hartzen duten enpresa handiei (kontzeptu hori Mikro-enpresa, Enpresa Txiki eta Enpresa Ertain kontzeptuak definitzen dituen 2003/361/EE Gomendiotik ondorioztatzen da) eska diezaien erantzukizun fiskaleko txostenak aurkeztea, zein herrialdetan dituzten filialak eta zeinetan ordain-

tzen dituzten zergak zehaztuta, ELGAren irizpideen arabera. Zehatz-mehatz, enpresa lizitatuak enpresa-taldeko enpresa guztien zerrenda aurkeztu beharko dute, baita jatorrizko enpresak gainerako filialekin duen jabetza-erlazioa ere. Informazio horrek filial bakoitzaren izena eta kokaleku geografikoa adierazi beharko ditu, beren-beregi zehaztuta paradisu fiskaltzat jotzen den lurralde batean dagoen. Era berean, jatorrizko enpresak filial bakoitzean duen partaidetza-portzentajea ageriaraziko da, sozietate-sarearen funtzionamenduari buruzko iritzi bat izan ahal izateko.

Halaber, enpresa horien presentzia izanik paradisu fiskaltzat jotzen ez diren herrialdeei dagokienez, enpresa parte-hartzaileek honako informazio hau aurkeztu beharko dute, herrialde bakoitzeko metatuta:

- Negozio-zifra.
- Irabaziak/galerak.
- Ordaindutako zergak.
- Jasotako diru-laguntzak.

Horrez gain, eta Justizia Fiskalaren Sarearen zerrendan paradisu fiskaltzat jotzen den lurralde bakoitzerako, enpresa parte-hartzaileek honako informazio hau aurkeztu beharko dute, filialka banakatuta; hau da, paradisu fiskaltzat jotzen den herrialde bakoitzean duten filial bakoitzeko:

- Izena.
- Jarduera.
- Langile-kopurua.
- Negozio-zifra.
- Irabaziak/galerak.
- Ordaindutako zergak.
- Jasotako diru-laguntzak.

2. Kontratu Publikoari buruzko 6/2006 Foru Legea alda dezan, kontratazio publikoko deialdien baremazioan lehentasuna emate aldera zerga-betebeharrak egokiro betetzen dituztenei.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 26an

Foru parlamentariak: Adolfo Araiz Flamarique eta Fátima Andreo Vázquez



## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da diabetesa duten helduentzako unitate funtzionala, diziplina anitzeko taldea izanen duena, sor dezan.**

*UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO, GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, PODEMOS-AHAL DUGU ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEEK ETA NAFARROAKO ALDERDI POPULARREKO ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEK AURKEZTU DUTE*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Mozioa izapidetzeko onartzea, Unión del Pueblo Navarro, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeek eta Nafarroako Alderdi Popularreko eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteek aurkezturikoa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita diabetesa duten helduentzako unitate funtzionala, diziplina anitzeko taldea izanen duena, sor dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeen eledunek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

ANADI-Diabetesaren Nafarroako Elkarteak 2016ko maiatzaren 17an Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean izandako lan bileraren ondoren, eta parlamentu-taldeek agertu zuten konpromisoa ikusita, honako erabaki proposamen hau aurkezten da:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Diabetesa duten helduentzako unitate funtzional bat, diziplina anitzeko taldea izanen duena (oftalmologia, neurologia, oin diabetikoaren unitatea...), sortzeko lan egin dezan, halakoa non azterketa medikoen kopurua murriztuko baita, horiek bateratuz, eta oftalmologiako itzarotzerrenden kudeaketa berraztertu ahalko baita kon-

plikazioak saihesteko, endokrinologoaren irizpideak betez eta begi-patologia diagnostikatzeko teknikak hobetuz; adibidez, aldizkako erretinografia, pazientearen kontrol metabolikoa nolakoa den ere.

2. Osasun-sistemaren barnean mekanismoak ezar ditzan, diabetesa duten pertsonen bizitza osoan zehar –eta ez debut-unean bakarrik– diabetesaren inguruko hezkuntza etengabea eta sistematizatua bermatzen dietenak, autozainketa eta tratamenduarekiko atxikidura indartuta. Diabetesaren inguruko hezkuntza hori bermatu egin behar zaie diabetesa duten pertsonen, haien diabetes mota (I. mota eta II. mota) zein den ere.

3. Diabeteserako material suntsikorra banatzeko irizpideak bateratu ditzan, diabetesa duten pertsonen material hori eskuratzea erraztu dezan eta gure erkidegoko osasun-zentro eta ospitale guztietan irizpide horiek betetzen direla ziurta dezan.

4. Glukosa-sentsoreak farmazia-prestazioetan sar ditzan.

5. Diabetesa duten pertsonen endokrinologia-zerbitzuetatik jakinaraz azal dakien diabetesaren tratamendurako teknologia berrien aplikazioa, zeinak ahalbidetzen baitu tratamenduarekiko atxikidura handiagoa, gaixotasunaren gaineko auto-kontrol hobea eta pertsonaren bizi-kalitate handiagoa. Une honetan honako hauek dira teknologia berri horiek: intsulinaz hornitzeko gailuak (BICI) eta glukosa-sentsoreak.

6. Azterlan bat egin dezan, ikastetxe publikoetan erizaintzako profesional bat ezartzearen gaineko beharizanak eta aukerak ikertuko dituen, osasunerako eta ohitura osasungarrietarako hezkuntza sustatze aldera eta diabetesa bezalako patologiak dituzten adingabeei behar bezalako arreta bermatzeko.

7. Baterako protokolo bat presta dezan, derrigor bete beharrekoa, Hezkuntza Departamentuaren, Osasun Departamentuaren, Diabetes Pediatrikoaren Unitatearen, ANADIren eta/edo gai horretan egiaztatuta dagoen beste edozein elkarteren artean. Protokolo horrek behar bezalako arreta (gluzemiak egitea, intsulina ematea ...) bermatuko die

diabetesa duten adingabeei ikastetxeetan, eskola-ordutegiaren barnean zein horretatik kanpo, ikasgelaren barnean eta bestelako jardueretan ere (adibidez, txangoak).

8. Hezkuntza Departamentuari eska diezaion jantoki horiek antolatzen dituzten guraso-elkarteei eskaera egin dakien, eskola-jantokiak gaur egun diruz laguntzen diren heinean, jantoki horietan ikasle guztien beharrezane behar bezala erantzuten zaiela berma dezaten, beharizan bereziak dituzten umeak horietatik baztertuta geratzea eragotzita.

9. Suhiltzaile eta polizia izateko enplegu publikoko deialdietan erabiltzen diren medikuntza-

bazterketen taulak berrikus ditzan eta diabetesa duten pertsonak banan-banan baloratuak izan daitezzen, kontuan hartuta diabetes mota, tratamendua, gluzemia-kontrolaren maila (batez besteko mailak eta aldakortasuna), jakintzak eta konplikazio arinak eta larriak, pertsona bat lanpostu horretarako gai ala ez-gai den erabakitzerakoan.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 25ean

Foru parlamentariak: Begoña Ganuza Bernaola, Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Bakartxo Ruiz Jaso, Mikel Buil García, Inmaculada Jurío Macaya, Javier García Jiménez eta Marisa de Simón Caballero

---

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak deitoratu egiten baitu ingurumen-aktibistek Hondurasen duten egoera.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2016ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak deitoratu egiten du ingurumen-aktibistek Hondurasen duten egoera. Izan ere, Global Witness erakundearen ustez herrialde hori arriskutsuena da aktibista horientzat.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten dio Berta Cáceresen familiari, orain dela hiru hilabete erail baitzuten Hondurasen zentral hidroelektriko bat garatzearen aurka jarduteagatik. Halaber adierazten du bere nahia dela ingurumen-aktibistek haren erailketaren erantzuleen bilaketan eta bai familia horri bai Berta kide zuen erakundeko kideei (Consejo Cívico de Organizaciones Populares e Indígenas de Honduras - COPINH) babesa berma dakien, Amnistia Internazionalaren ustez arriskuan baitaude.

3. Nafarroako Parlamentuak espero du Hondurasen giza eskubideen urraketa larrien erantzuleen inpuniteak utz diezaiola ohikoa izateari, Berta Cáceresek berak iaz salatu zuen bezala."

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten baitu Buñuelgo General Electric-en lantegian enpleguari eusteko.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2016ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du Buñuelgo General Electric-en lantegian enpleguari eusteko.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du Nafarroako Gobernuarena izan behar dela ekimena, bere erantzukizun esparrutik abiarazia, eta esparru horren barnean berrindustrializazio- eta/edo irten-

bide-proiektu bat babestu behar dela, jarduerari jarraipena ematea ahalbidetuko duena.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du Foru Komunitatean enplegua sortzearen eta jada dagoenari eustearen aldeko apustua egiten duela, herritarren kezka nagusia eta oraingo zein etorkizuneko garapenerako eragilea baita.”

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko Foru Legea Estatuko araudira egokitzeari buruzkoa.**

*MÓNICA DOMÉNECH LINDE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mónica Doménech Linde andreak aurkeztutako galdera, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko Foru Legea Estatuko araudira egokitzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Onetsi al du Nafarroako Gobernuak Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko Foru Legea Estatuko araudira egokitzea?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

---

**Galdera, Nafarroako Gobernuak prestazio handiko trena sustatzeko proposatuko dituen neurriei buruzkoa.**

*CARLOS GARCÍA ADANERO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Carlos García Adanero jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak prestazio handiko trena sustatzeko proposatuko dituen neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Carlos García Adanero jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Errioxako Gobernuako lehendakariaren eta Nafarroako Gobernuako lehendakariaren arteko bileraren ondoren, Zein neurri proposatuko ditu Nafarroako Gobernuak prestazio handiko trenak sustatze aldera?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 23an

Foru parlamentaria: Carlos García Adanero

**Galdera, Anbulantzia Medikalizatuko Zerbitzuari buruzkoa.****SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkeztutako galdera, Anbulantzia Medikalizatuko Zerbitzuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Sergio Sayas López jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilari María José Beaumont andreak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Zer arrazoi dela-eta aldatu du Gobernuak Anbulantzia Medikalizatuko Zerbitzuari buruzko irizpidea bost hilabete eskasean, gai hori hain garrantzitsua izanda?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 24an

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

**Galdera, erietxe-arteko zerbitzu programatuaren pribatizazioari eta Reina Sofía Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuetarako zainketa intentsiboen bigarren unitate mugikor bat ezartzeko aukerari buruzkoa.****MARÍA ASUNCIÓN FERNÁNDEZ DE GARAYALDE LAZKANO SALA ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Asunción Fernández de Garayalde Lazkano Sala andreak aurkeztutako galdera, erietxe-arteko zerbitzu programatuaren pribatizazioari eta Reina Sofía Ospitaleko Larrialdi Zerbitzuetarako zainketa

intentsiboen bigarren unitate mugikor bat ezartzeko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernandez de Garaialde andreak honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aurtengo maiatzaren 24an Osasun Batzordeak Reina Sofía Ospitaleko larrialdietara egindako bisitan adierazi ziguten zainketa intentsiboen bigarren unitate mugikor bat behar dutela, eta halaber azaldu zizkiguten zainketa intentsiboen egungo unitate mugikorak egiten dituen zerbitzuak. Honakoak, hain zuzen: larrialdiak, eskualdeko urgentiak eta erietxe arteko garraio urgeteak.

Erietxe arteko zerbitzu programatua pribatizatu egin da, eta azpikontrataturako enpresak gauzatu du haren ardurapean dauden mediku eta erizainen bidez; hori dela eta, parlamentari honek ahozko honako galdera hau egiten du:

- Zergatik pribatizatu da osasun-zerbitzu publiko bat, horretan aritzeko prest dauden medikuak eta erizainak egon badaudenean? Aztertu al du zure departamentuak zainketa intentsiboen bigarren unitate mugikor bat ezartzearen aukera?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 24an.

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde

---

## **Galdera, Iruña-Noain aireportuaren garapena agertuko duen azterlanaren egoerari buruzkoa.**

*GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Iruña-Noain aireportuaren garapena agertuko duen azterlanaren egoerari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Batzordean ahoz erantzun dezan.

Zein egoeratan dago Iruña-Noaingo aireportuaren garapena agertuko duen azterlana?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren banda zabal korporatiboaren eta abiadura handiko zuntz optikoaren eta Interneten hedapena garatu eta handitzeari buruzkoa.**

*GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren banda zabal korporatiboaren eta abiadura handiko zuntz optikoaren eta Interneten hedapena garatu eta handitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Batzordean ahoz erantzun dezan.

Aurrera egin al da nola edo hala Nafarroako Gobernuaren banda zabal korporatiboaren hedapena garatu eta handitzeko lanean? Zer neurri hartu nahi ditu Nafarroako Gobernuak abiadura handiko zuntz optikoa eta Internet nafar guztien-ganaino hel daitezen?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

## **Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldeen artean arrakala digitala txikitzeari buruzkoa.**

*GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldeen artean arrakala digitala txikitzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Guzmán Garmendia Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Batzordean ahoz erantzun dezan.

Zer neurri ari da hartzen Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko lurraldeen artean arrakala digitala txikitzeko?

Iruñean, 2016ko maiatzaren 26an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

## **Galdera, Nafarroako Merkataritza Modernizatzeari buruzko IV. Planari buruzkoa.**

*GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko maiatzaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Merkataritza Modernizatzeari buruzko IV. Planari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko maiatzaren 30ean

